



Kutxa didaktikoa Lanbideak

Lanbideak izeneko kutxak 10 objektu biltzen ditu, 10 lanbide ezberdinei dagozkienak. Objektuak industriaurreko garaikoak dira.

Nekazaritza

Kaixuleta

Eskumuturrari lotzeko soka duen pago-zurezko kaixuleta.

Igitaiarekin mozteko erabiltzen den beste eskua babesteko balio du, eskularru gisa.





Abeltzaintza

Azienda-marka

Abereak bikearekin markatzeko balio duen forjatutako burdinazko pieza zurezko heldulekuarekin, jabearen edo beronen etxearen marka edo anagrama jartzen delarik.

Arrantza

Arpoia

Zetazeoen eta beste arrain handi batzuen arrantzarako balio duen forjatutako burdinazko erreminta. Arrantzaleek itsasontziaren bizkarretik arpoiak jaurtitzen zituzten, animalia haragian sartu eta finkatzeko.



Zurgintza

Marrusketa

Arte-zurez eta eskuz egindako arotzaren erreminta zura eskuilatu edo arbastatzeko, zurezko ziri baten bidez erregulatu daitekeen hortz bati esker.

Artzaintza

Joarea

Ardientzako metalezko artisau-lana duen joarea, artzainari bere artaldea aurkitu eta identifikatzeko balio diona. Sonoritatea erregulatzeko zuloak ditu. Ezkila-mihia adarrez eginda dago.



Eraikuntza

Beruna

Brontzezko punta, zeinak soka batetik zintzilik jarrita, bertikala modu zehatzean erakusten duen.

Errementaritza

Ingudea

«Bigornia» motako burdinazko ingude txikia beheko ziria duelarik, eusten duen zurezko motzondoan ainguratzeko. Errementariak forjatik atera berri diren pieza txikiak (sarrailak, joareak, etab.) jo, zanpatu, tolestu eta moldatzen dituen erreminta da.





Joskintza / Jostuntza

Jostotzara

Ixtean ahokatzen diren bi zatiez osatutako errafiaz egindako saskia, belusez forratua. Jostelana eta hura egiteko tresnak gorde eta garraiatzeko erabiltzen da (orratzak, hariak, guraizeak, iskilinbak, titarea, etab.). Aurrealdean «M» letra du (elementu pertsonalizatua).

Irakaskuntza

Tintontzi eta luma-muturra

- Zilindrikoa eta baxua den beirazko flasko txikia, «SIGNO» marka duen bakelita beltzeko tapoi hariztatuarekin.
- Mutur batean latorrizko zorroa duen zurezko makilatxo zilindrikoa sorbatza ahokatzeko eta, behin tintaz kargatuta, harekin idatzi ahal izateko.



Merkataritza

Imina

Zereala neurtzeko edukiera-neurria, sistema metriko hamartarra ezarri aurretik erabiltzen zena.